mundumira@egunkaria.com



# buzoia

### Azaroak 23-24

**ARABA**

Gasteiz (Mercedes-Benz Kirol elkartea) ▪ Illarrazu Urto mendatea zeharkaldia.

**BIZKAIA**

Leioa (Leioa mendi taldea) ▪ Peñalara (1.295 m.).

Sestao (Alpino) ▪ Egozkue mendatea, Azimendi, Burdindogi (1.241 m.), Goitean, Iragi. Inf.: 94 472 13 79.

**GIPUZKOA**

Azpeitia (Lagun-Onak mendi bazkuna) ▪ Gaztetxoentzat, Aizarnazabal, Indamendi, Urdaneta, Txiboaga. Inf.: 943 81 20 25.

Donostia (Vasco de Camping) ▪ Nabaskoze, San Quirico, Ollateko lepoa, Ollate (1.423 m.), Coronas mendatea.

Ordizia (Ordiziko mendizaleak) ▪ Ganbo (1.408 m.). Inf.: 943 16 05 99.

**NAFARROA**

Baztan (Baztango mendigoizaleak) ▪ Elizondo, Belaun, Urruxka, Oketa, Elizondo zeharkaldia.

Iruñea (Txantrea mendi taldea) ▪ Gaztetxoentzako (5-15 urte) hainbat irteera antolatu dituzte mendi astearen harira. Asteazkenean eman daiteke izena 20.00etatik 21.30etara, Harmonia Elkartean. Inf.: 948 13 44 84

Iruñea (Lagunak mendi taldea) ▪ Arrazola Anboto, Otxandio.

Lizarra (Lizarra mendizale elkartea) ▪ Udalaitz (1.117 m.) Inf.: 948 55 22 35.

### Azaroak 30-Abenduak 1

**ARABA**

Gasteiz (Peña Karria) ▪ La Puebla, Busto (976 m.), Zaldiaran, Arrieta (1.006 m.), Gasteiz mendatea.

Gasteiz (Gazteizmendi taldea) ▪ Clavijo Laturre (1.039 m.) Errioxan.

Laudio (Goikogane mendi taldea) ▪ Arraldegaina, Egillor. 94-672 50 21.

**BIZKAIA**

Basauri (Baskonia mendi taldea) ▪ Aldealobos, Cabi Monteros (1.388 m.), Arnedillo. Inf.: 94 449 57 28

Bilbo (Mendizale Zoroak) ▪ Mendaro Otarre (662 m.).

Bilbo (Juventus) ▪ Ibardin, Manttale (573 m.), Xoldokogaña, Biriatu zeharkaldia.

Bilbo (Egunsentia mendi taldea) ▪ Araotz Andarto (1-062 m.).

Durango (Alpino Tabira) ▪ Senderismoa Durangaldeatik.

Galdakao (Ganguren mendigoizale taldea) ▪ Otxandio Arrazola zeharkaldia, Orisol (1.127 m.) eta Izpizte gailurretatik igarota. Inf.: 94 453 23 26.

Lemoa (Ganzabal mendi taldea) ▪ Bizkaiko Bira. Azken etapa: Garobel Mendikatea, Lendoño, Tologorri (1.066 m.), Aloria. Inf.: 94-631 30 09

Sestao (Alpino) ▪ Lanestosa Mortera (723 m.). Telf.: 94 472 13 79.

Sestao (Galindo) ▪ Peña del Leon (1.389 m.) Lagrandik. Inf.. 94-400 92 94.

Portugalete (Ganerantz mendi taldea) ▪ Bianditz mendatea Astigarraga zeharkaldia: Bunaniarri (781 m.), Zaria, Aldura eta Igoin gailurrak. 94-461 54 05.

**GIPUZKOA**

Andoain (Euskalduna mendigoizale taldea) ▪ Artaza, Krezmendi (1.121 m.) Etxebarri haitzak, Iranzu. Gaztetxoentzat, Andoain, belabieta, Loatzo (631 m.), Villabona zeharkaldia. Inf.: 943 59 22 32.

Azpeitia (Lagun-Onak mendi bazkuna) ▪ Azpeitia, Izazpi (967 m.), Mandubi.

Beasain (Aitzgorri mendizale elkartea) ▪ Beasain, Lazkaoetxe, Beasain.

Elgoibar (Morkaiko mendi taldea) ▪ Aizkorri (1.544 m.).

Legazpia (Izadi zaleak) ▪ Montejurra (1.045 m.) Lizarra. Inf.: 943- 73 11 68.

Pasai Antxo (Jaizkibel mendizale taldea) ▪ Arabako Bira, Elgea-Zalduondo zeharkaldia. Inf.: 943 51 47 00.

**NAFARROA**

Elizondo (Baztango mendigoizaleak) ▪ Amaiur, Urdazubi, Otsondo gaina, Amaiur zeharkaldia.

Iruñea (Lagunak mendi taldea) ▪ Allo Urantzia zeharkaldia.

Iruñea (Anaitasuna kirol elkartea) ▪ Ezkurra, Erakurri (1.140 m.), Erasun. Inf.: 948-254900

Sakana (Sakanako mendizaleak) ▪ Irañeta Goldaratz zeharkaldia, Aralarren.

## ikastaroak

### Azaroak 23 eta 24

Donostia (Mendiak eta Herriak) ▪ Bi ikastaro. Orientaziokoa lehena, hastapenekoa, Lizarrustin. 'Goimendia Neguan' da bigarrena. Auñamendi, Hiru Erregeen Mahaia eta Antsabereko Orratzetan. Inf.: 948 51 32 33.

### Azaroak 27 eta 28

Andoain (Euskalduna Mendigoizale taldea) ▪ Autobabesa mendian ikastaroa. Inf.: 943 59 22 32

### Abenduaren 9tik 12ra

Donostia (Vasco de Camping) ▪ Mendian ibiltzeko hastapen ikastaroa, Gloria Latasa eta Nekane Intxaustiren eskutik. Abenduaren 14an mendi irteera ikasitakoa praktikan jartzeko. Inf.: 943 42 84 79.

### Abenduak 14 eta 15

Donostia (Gipuzkoako goimrndi eskola) ▪ Hastapena eta segurtasuna goimendietan, Glaziareetako alpinismoa. Portalet mendatean. Dirusaria, 100 euro, abenduaren 26a ondoren ordainduz gero eta 82,66 euro asteartea baina lehen ordaintzen bada. %65eko beherapena egingo zaie 15 eta 21 urte bitarteko gazteei. Dirusariarekin aterpea eta mantenu erdia, monitore bat lau ikasleko, ikastaroaren xehetasunak biltzen dituen txostena eta garraioa ordainduko dira. Partaideen kopurua mugatua izanen da. Izen-emate kopurua 25ekoa baino txikiagoa bada, autoetan egingo da bidaia eta 12 euro itzuliko dira. Inf.: 943 46 14 40, astelehen, asteazken eta ostegunetan, 11.etatik 14etara eta 17etatik 20etara edo federazioaren bulegoan, Donostiako Anoeta pasealekuan.

## lehiaketak

### Abenduaren 12a arte

Elgoibar (Morkaiko mendizale elkartea) ▪ Argazki lehiaketa. Abenduaren 12a da lanak bidaltzeko azken eguna. Pertsonako hiru argazki aurkez daitezke, nahi den tamainu eta formatoan, betiere mendia delarik gaia. 180 euroko dirusaria jasoko du garaileak eta 120 bigarrenak. Erakusketa egingo dute argazkiekin eta ikusleen botu gehien jasotzen dituenak irabaziko du saria. Inf.: 943 74 02 97.

## emanaldiak

### Azaroak 22

Iruñea (Nafarroa Kirol Elkartea) ▪ Irango koloreak emanaldia izango da ikusgai gaur, arratseko 8retan. Jarauta 78.

## bestelakoak

### Azaroaren 25etik 29ra

Donostia (Vasco de Camping) ▪ Mendi eta Eski materialeko azoka txikia. Aste osoa mendi elkarteko bulegoan (San Marcial 19, behea) arratseko 6retatik 8.30etara.

### Azaroak 30

Pasai Antxo (Superportuaren aurkako taldea) ▪ 'Jaizkibel Bizirik! Eguna' antolatu dute, ingurune hartan egingo den Superportuaren aurkako ekimen gisa. Hainbat ekintza antolatu egun osorako. Goizeko 11tan izango da lehena, trikitilariek girotutako dianarekin (Zumarditik abiatuta). Txalupan kostaldetik irteera informatiboa egingo da jarraian. 14.30etan bertso bazkaria egingo da Jon Maia, Jon Martin eta Xabier Silveirarekin. 19.00etan, Kultur Etxean, diaporama bat eskainiko da eta Mikel Alvarezek hitzaldia emango du Superportua hizpide duela. 9retan kalejira egingo da Zumarditik Campsa enpresaren egoitzara eta han afaria eta kontzertua, Kean, R, Zea Mays eta Ekintza taldeekin.

### Abenduan

Iruñea (Nafarroa Kirol Elkartea) ▪ 'Emakumeak objektiboetan' argazki erakusketa. Jarauta 78.

## bidaztiaren orriak




*Tierra de Cameros* liburuak (El Senderista argitaletxea) Errioxako eskualde ezezagun horretako 23 mendi ibilbide erakusten dizkigu. Rufo Ganuza lizarratarrak eta Alicia Sanz de Acedok osatu dute 190 orriko argitalpena. Cameros bailarako herritarrek transhumantzian izan dute ogibidea mendeak joan, mendeak etorri eta bizibide horren isla bizi-bizi nabarmentzen da egun. Oihan sakonak, landaredia, haitz tenteak, 2.000 metrotik gorako gailurrak eta zirku glaziarren arrastoak topa daitezke Camerosen. Liburuak bi atal ditu. Cameros eskualdeko klima, inguru-giroa, historia eta herrien xehetasun zenbait dira hizpide bertan. Bigarren atalean zailtasun anitzeko 23 ibilbide dira ardatz. Guztietan fitxa teknikoa, mapa, argazkia eta ibilbidearen azalpen zehatza aurkituko ditu irakurleak. Egileen hitzetan, masifikaziorik ezagutu ez duen ingurune ikusgarria da Cameros bailarako erakargarritasun nabariena. 12,50 eurotan da salgai liburudendetan.

## Bardeetatik Himalayara, Mendi Astea Txantrean (Iruñea)



Euskal Herritik, Bardeetatik abiatu eta Andeetatik igarota, Himalayaraino bidaia egiteko aukera izango da heldu den astean, Iruñeko Txantrea mendi taldeak antolatutako mendi astean. Rafa Santestebanek emango dio hasiera (astelehena, azaroak 25), 'Patagonia: Alpinismo magikoa: Izotza, elurra eta harkaitza' emanaldiarekin. Asteartean Andeetara jauzi egin eta 'Bi tropikoen arteko gailurrak' erakutsiko dituzte Alberto Urtasunek eta Patricia Viscarretek. Asteazkenean Himalayako lehen diaporamak hartuko du txanda: 'Manaslu, espirituen Jauregia', Nerea Dominguez eta Gorka Ripodasen eskutik. Ostegunean Euskal Herriko txoko ederrenetako batera eramango ditu ikusleak Fernando Plak, Bardeetara hain zuzen ere. Ostiralean, azken egunean, Himalayako mendi ederrenetako baten nondiko norakoak, Makalukoak (8.481 m., argazkian Baruntse tontorretik ateratako argazkia), izango ditu hizpide Carlos Pauner aragoarrak. Emanaldi guztiak Txantrea Kirol Elkartearen igerilekuan izango dira, arratsaldeko 8retan.